

# erriko jaietan

A. Marzel, c. p.

Egunak joan eta etorri,  
ezta poztasun makala!  
gor-itsuak be igarten dabe  
erriko jaia dirala.  
  
Dinbi-dambala  
emon jo-ala;  
auzoak jakin daiala.  
Kanpai ta neste zabaldutem da  
oillo garaxi itzala.

Meza-ondoren apusturen bat  
beti ezpada bai sarri,  
daukezan diru eta geiago  
jokatzen dautsez alkarri.  
  
Estu ta larri  
iso ta arri,  
zein dan asto nok igarri?  
Tranpa ta tongo naiko eginda  
guztiak dira egarri.

Etxeko-andra errukarriak  
gau osoa erdi lotan,  
estu ta larri ames egiñik  
zer zelan jarriko dotan.  
  
Sarri askotan  
Meza bakotan  
ainbeste dira auzotan.  
Eta doazan geienak dagoz  
lo-zurrungaka sermotan.

Gizon ta mutil asiko jatzuz  
kulerik kale errondan,  
barritsu dabiz agurak eta  
gaztiak zantzo ta kantan.  
  
Alkarren txandan  
jan eta edan;  
beti etxerako plantan.  
Koru orretan ezinda iñor  
aspertu sekula santan...

gizon morrosko jente guztia  
Meza nagusira doia,  
ezta erreza ezagutzea  
zein dan jaun ta zein morroia.  
  
Ortik orroia  
andik sermoia,  
mar-mar korupc ta goia;  
ikusten danez, beti daukie  
euren alde errazoia.

Alako baten etxeratuta  
apatx, jarleku nasaian,  
ordu bietan jaten asita  
seiterdieten be maian.  
  
Erriko jaian  
ba da zer-naian;  
ainbat sartzen da sabaian;  
Batek nun diñon; Ordua da-ta,  
apaldu daigun jarraian.

*Etxean diran janak janda be,  
damu geiago jan ezak,  
zati bateko ustu-aldia  
artu d'au orko artezak.  
Gero amesak  
berba erreza, k  
ezkontzarako promesak;  
or doiaz praka bako kuku ta  
kuku-prakadun markesak.*

*Zelan edo nok barruan euki  
geldi ainbat gasoliña?  
Ixildu barik dauke barruan  
plazara deika sorgiña.  
Eup! Trakoliña!  
jo tanboliña;  
Ori dabil poxpoliña...  
Ai, gizontxua, biar goizean  
joko dok ik biboliña!*

*Gaba ezkerro, plaza tabernan  
egiten daben girua!  
Antxen entzungo dabe goizeko  
txorien txirulirua.  
Bota dirua,  
edo tirua...  
nok egin erretirua?  
Egun bi barru dator etxera  
jokuko zorren jirua.*

*Zeru goietan bizi zarian  
gure Zaindari maitia,  
zeure aurrian auspez gagoz ta  
gugaz erruki zaitia!  
Emon bakia  
jan-edatia,  
gero zabaldu atia;  
au amaituta merezi daigun  
zeure ondora joatia.*

*Zarrak tabernan, gaztiak plazan  
iñortxo ezin da kantza,  
guarda zibillak ikaratuta  
asi dira etxerantza.  
Onek arrantza,  
arek balantz;  
sekulako asto-dantza...  
Santuak bedeinkatu daiala  
arrapau daben buzkantza.*

*Amaikak iota oian etzunda  
ezin jaso betazalak,  
tripa ta buru galdua dagoz  
oneik dira karnabalak.  
Orroika txalak  
gosez tripalak;  
asarre andra zitalak.  
baiña, diñonez, ez dira izan  
aurtengo jaiak makdlak!*

*Orra zetara datozen sarri  
gure erriko jai-egunak,  
olan goraltzen al doguz emon  
gure Zaindari kutunak?  
Guraso jaunak,  
ta ardurañunak,  
baserrí gazte lagunak:  
erriko jaiak garbitzen ekin,  
gu bai gara Euskaldunak!*